

NI BASERRIAN

*Gora ta beera dabiltza zeruan, itxuraz beintzat, izarrak.
Beren zoria duzu or nunbait, eta ez da arritzekoa. Gisa or-
tako omen dugu gaur baserria: bestorduz, lau bat mende
dirala, goi-erpiñera igo zuen arren, orain aldatz-beera da-
torkigu xixtu bizi samarrean. Jendeak ibarra nai du, mendia
lagarik. Baserria dugu, ala ere, euskaldunaren egiazko jatorria.*

Doiñu: K. Enbeita-en «Txomin eta Matxalen,...».

Aintza du irriki noiznai gizonak
ez du nai otsein izenik:
neri naikotan esan didate
otsein naizela lurretik.
Uriak ote du ala lurrak
ematen poz aundigorik?
Au jakin-miñez zauritua naiz
aspaldi ontan errotik.

Atzo futbola ikus duguño
izan nun Bilbon zoria:
ostikoz bizkor leia zirala,
an bai oi, garraxia!
Ibil-bearra kalean ere,
ezin egona bizia!
Gure txokoan, guztiz bestera,
dena dugu ixil ezta.

Joku ostean saka ta bultza
 ibilli nintzan kalean.
Kotxe ta jende, zer abarrotsa!
 beti arrisku artean.
Nik ez dazaut, nola arraie!
 olako iskanbil asean
egunik egun, zoratu gabe
 iñor bizi litekean.

Gau duzu. Giro otz. Ezarian naiz
 ibai ondora iritxi.
Zubia dut gaiñ; argi ontziak,
 dena daukate txit zuri;
Bilbo bai aundi! Gizarte leiak
 zoroen kezka dirudi;
oiñen urratsak itzal arrear
 dardaraz naute ipiñi,

Ixillez luze, irel-suzko
 urgain zaudeten ontziak!
Zuok nai neri barne atxeki
 orratz aundi ikaratiak!
Itzala ta argia, aitu-eziñak,
 uztartu ditu zoriak,
teknika zuurki molde-aziaz
 gizonen jakituriak.

Dirdir dagite millaka margoz
 kale zokoak zearo;
gorri ta berde, ori ta zuri,
 ñirñir daukat leku oro;
gaurkoz bederen argi-margotan
 asetua naiz osoro,
baiña ez aitor urian bizi
 ditekellarik gozoro.

Senak eskatzen dion guztia
duela sendo eskuan,
gizasemeak ba al daki ondo
zer daramagun buruan?
Gaurko egunez usterik ote
bere gora-nai zoruan?
Ezbear punpak ezertxo ere ez
erakusten zartakuan?

Ni ere etxean, baserritarra,
neretik beti neurritsu,
kopet-izerdiz eskuraturik
ogi-zerrenda gogotsu,
obeki nabil, ez, otoi, uka! ;
gorputza zimel, indartsu,
adimena zail, argiz ornia,
errime ta osasuntsu.

Ez, nadin makur —zoro nintzake-
oker-ontzia denari,
naiz-ta tai gabe, giro azterka,
lilluraz jardun kantari.
Doazte uin zakar, ekaitz aseak,
doazte urrun abeslari:
bebiltza ortik beetarrak zoro,
turuta joaz ari ta ari.

Uriaz guztiz bes telakoa
dut nik nere baserria;
gizasemea ez dagi sosak,
lanak dakar sos joria.
Osa dezagun etorkizuna,
zuurki dugula begia.
Pozkida bekit bakar-zekoa
ene lanaren saria.